

"Casa Aramendia" 2015eko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa

- *Gipuzkoako Bazkondeak **Erreneriako** "Casa Aramendia" 2015eko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa izendatu du bere kudeaketa egokiagatik eta ingurunearekin daukan konpromisoarengatik.*
- *"10 bitxiak" izendapenaren barruan Gipuzkoako pertsonen eta osasun ekipamenduko sektoreko hamar merkataritza enpresa esanguratsuenak saritu dira.*
- *Sari banaketa ekitaldia gaur gauean burutu da Gipuzkoako Bazkondeko egoitzan eta bertan Markel Olano, Gipuzkoako Aldun Nagusia eta Itziar Epalza, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailburuordea izan dira. Ekitaldia Kutxabank-ek eta Euskaltel-ek babestu dute.*

Donostia - 2015eko Azaroaren 27a - Erreneriako **Casa Aramendia** enpresa komertzialak 2015eko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa saria eskuratu du. Saria Gipuzkoako Bazkondeak banatu dituen Gipuzkoar Merkataritza Enpresa Sariaren XXIII. edizioan jaso du, bertan Markel Olano, Gipuzkoako Aldun Nagusia eta Itziar Epalza, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailburuordea izan dira. Sari banaketa ekitaldia **Kutxabankek** eta **Euskaltelek** babestu dute eta Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Bulego Teknikoen laguntza izan du.

Casa Aramendiak 2015eko Gipuzkoako Merkataritza Enpresa saria jaso du bere kudeaketa egokiagatik eta ingurunearekin duen konpromisuagatik. Enpresan ezarritako teknologiak eta dendetako irudi bateratua ere aintzat hartu dira hautaketa honetan.

Casa Aramendiak aurrera jarraitzeko ahaleginak egin dituen enpresa bat da, denda batekin hasi eta orain hamar dendek osaten dute enpresa. Casa Aramendiak 2000. urtean ireki zituen bere ateak Errenerian, Javier Aramendiak bere negozioa irekitzeko erabakia hartu zuenean. Baina Casa Aramendiak bere jatorria Nafarroan duela argitu behar da, Zangotzan zehatz mehatz. Javier Aramendiaren sendiak 1898 urtetik du gozotegia negozioa bertan, han izan zen Javierrek gozo munduarekin izan zuen lehen harremana eta bere zaletasuna jaio zen lekua.

Hemezortzi urterekin gozo munduarekin erlazionatutako ikasketak hasteko erabakia hartu zuen eta Bartzelona, Madril eta Frantziara abiatu zen. Sei urte beranduago Donostiara itzuli zen eta bere negozioa Errenerian irekitzea erabaki zuen: **Casa Aramendia**. Denbora gutxian Erreneriako bizilagunen artean ezinbestekoa bihurtu zen Casa Aramendia gozotegia. Zortzi urte ondoren merkatu kuota irabazten joan zen, lokala txikia geratu zen eta bere kokapena local handiago batera aldatzea erabakitzen du, Erreneriako erdigunean hau ere, oraindik matraxan jarraitzen duen denda. 2011 urtean berriz, Casa Aramendiak krisiaren eraginak pairatzen ditu.

Urte zail batzuen ondoren, Javier Aramendiak negozio modelu aldatzea erabakitzen du. 2013. urtean Rich katearen itxieran negozio aukera bat ikusten du eta bere negozioa dibertsifikatzea erabakitzen du kate honek Donostian utzitako 9 lokalak bereganatuz. Horrela, hamar urtetan Erreneriako 3 langileen negozioa 33 langile dituen gozotegi kate batean bihurtzen da.

Hamabost urte hauetan zehar Casa Aramendiak balioa erantsi dio negozioari prestakuntzak eskaintzen dituen esperientzai berriengatik apustu eginez, langileak sektorearen arlo ezberdinetan prestatuz. Horrez gain, Casa Aramendiak prestakuntza eskaintzen du edozein motako publikoarentzat, bezeroen partehartzea bultzatzen du eta euren dendetako ordutegia herritarren kontsumo ohiturei egokitzen du.

Hasiera hasieratik Casa Aramendiak teknologiangatik apustu egin du, gaur egun web gune bat du eta sare sozialak bezeroekin elkar eragina izateko erabiltzen ditu, denda guztiak era bateratuan kudeatzeko aukera ematen duen informatika sistema bat izateaz gain. Enpresaren irudia ere merkatuaren joera berrietara egokitu dute eta denda guztietan dekorazio berdina ezarri dute.

Gaur egun, Casa Aramendiak berrikuntzagatik, ikerketagatik eta negozioa zabaltzeko ahaleginarengatik jarraitzen du lanean, horren adibide Japonian, Venezuelan eta Kroazian lortu dituen harremanak bere produktuak ezagutzeko. Hau guztia, ez da harrizkoa Javier Aramendiak bere burua horrela definitzen duenean: bere munduan ekintzailea, bere gremioan berritzailea eta gertuko merkataritzaren sutsu.

"10 bitxiak"

Edizio honetan, aurreko bitan egin zen bezalaxe, Gipuzkoako Bazkondeak Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Bulego Teknikoekin egin du lan, sariak Gipuzkoa osora gerturatzeko helburuarekin. Sariak partehartzaileagoak eta esanguratsuagoak bihurtuz. **Gipuzkoako sariak.**

Helburu hau argi eta garbi islatzen da "10 bitxiak" sarian, eskualde bereko merkatariek direlako Gipuzkoako 10 merkataritza enpresa nabarmenenak aukeratu dituztenak, lurraldeko merkataritza bitxien mapa sortuz.

Aurten saria **pertsonen** eta **osasun ekipamenduko** sektoreko dendetan oinarrituta egon da, eta ondorengo hauek dira Gipuzkoako merkatariek saritu dituzten dendak: Deba Garaia eskualdekoek **Arrasateko Perfumería Altuna** saritu dute. Urola Garaikoek **Legazpiko Idoia Oinetakoak**. Debarrena eskualdekoek **Eibargo Lahidalga** zapata denda eta Bidasoaldekoek **Hondarribiako Eukeni Optika** saritu dute, **Donostian Ortopedia Sumisan** saritu duten bitartean. Donostialdean berriz, **Lasarte-Oriako Perfumería Maiane** saritu dute eta Goierri aldean **Ordiziako Ness**. Oarsoaldea eskualdean **Errenteriako Bámbola** saritu dute eta Tolosaldea eskualdekoek **Tolosako La Ratita Presumida**. Urola eskualdekoek, azkenik, **Azpeitiako Valverde Drogeria** saritu dute.

Eskualdeko merkataritzaren ezaugarri diren balore, irudi eta prestigioa adierazten dutelako saritu dituzte merkataritza hauek guztiak "10 bitxiak" sariarekin.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347